

Kale-erabilera neurketa Lemoa 2017



**LEMOA
UDALA**

Lemoan, 2017ko ekainean





0. Aurkibidea

1. Sarrera	04. or
2. Metodologia	05. or
2.1. Landa-lana	05. or
2.2. Elkarrizketa-hizkuntza	05. or
2.3. "Lemoaztarren" erabilera baino gehiago Lemoako kaleetakoa	06. or
2.4. Aplikazioa	07. or
2.5. Ibilbideak, egutegia eta ordutegiak:	08. or
3. Erabilera Lemoan, 2017. Eraitza orokorra	10. or
3.1. Hamar elkarrizketetatik ia erdia euskaraz Lemoan	10. or
3.2. Erabilerarena testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila	11. or
3.3. Euskararen erabilera Lemoan, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta	14. or
4. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK	16. or
4.1. Sexuaren araberako eraitzak	16. or
4.2. Adinaren araberako eraitza	17. or

Oharra: Txosten hau Soziolinguistika Klusterrak egiten dituen kale-erabilera neurketetan oinarrituta dago.



1. Sarrera

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean euskara zenbat erabiltzen den, hain zuzen ere.

Badira beste hainbat datu (errolako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegiako matrikulazio datuak...) herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko baliagarri direnak. Datu eta joera horiek guztiak, nonbait nabarmentzekotan, herriko kaleetan besteak beste ematen den eguneroko erabileran nabarmentzen dira. Kale-erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean.

Kale-erabileraren datua funtsezkoa da herri mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Euskararen aldeko sustapen-lan bat aurrera eraman ahal izateko baliabideak mugatuak izan ohi direnez, beharrezkoa zaigu premiarik larrienak zein diren ezagutzea, lehentasunak finkatzea, eta ondoren horietan eragiteko ekimenak martxan jartzea.

Neurketak, besteak beste, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek erraztu egiten digu ondoren lehentasunak non dauden erabakitzea. Gainera, kale-erabileraren neurketa maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitu.

Momentu honetan Lemoan 2013-2017 Euskararen Plan Estrategikoaren hausnarketaren atarian gaude eta, hurrengo plangintzaldia diseinatzeari begira, garrantzitsua iruditu zaigu kale-erabilera zein den ezagutzea hemendik aurrerako plangintzaldi bakoitzaren amaieran, kalean dagoen errealitatea ezagutuz eraginkortasunez erantzutea errazagoa izango da-eta.



2. Metodologia

Kale-neurketaren metodologia behaketa zuzena da; neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen dute, ezertxo ere galdetu gabe. Hala, hiztunek ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dute. Beraz, inkestaren bidez jasotako datuen subjektibotasuna saihesten da eta emaitza fidagarriagoak lortzen dira.

2.1. Landa-lana

Landa-lana gauzatzekoan neurtu beharreko kaleak aurrez identifikatu ditugu ibilbide desberdinak zehaztuz. Horretarako irizpide nagusia herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da, besteak beste: eskola ingurua, plaza inguruak, parkeak, eraikin publikoak eta taberna guneak. Ibilbidearekin batera, neurketarako egunak eta orduak ere definitu dira, eta horien hautaketan gure helburua herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtu ahal izatea izan da; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak izatea estatistikoki neurtuak izateko aukera.

2.2. Elkarrizketa-hizkuntza

Ezaugarri metodologikoen artean aipatu beharreko beste bat honakoa da: neurtzen duguna, norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarrizketa -hizkuntza dela. Kaleko erabileraz ari garela, elkarrizketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarrizketok beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak (ezinbestean). Ondorioz, talde batean elkarrizketa bat behatzen dugunean, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat, suposatuz une horretan hizkuntza horretan ari badira, beste batean ere horrela ariko direla, eta aldi berean suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat balitz hizketan ari dena, neurtu dugun hizkuntza berean egingo lukeela.

Kale-erabileraren neurketa izanik, hiztun-talde bakoitza une labur batean baino ez dugu behatzen eta ondorioz metodologia honekin ezin dugu taldeko kide bakoitzaren jokaera ezagutu. Dena den, hau horrela egiteko oinarri metodologikoak sendoak dira. Klean behatzen ditugun hiztun-



-taldeek hizkuntza-jokaera finkatua izaten dute eta hau oso gutxitan aldatzen da. Neurtzen ditugunak kasurik gehienetan lagunak, familia berekoak edota hurbilekoak izaten dira. Kasu horietan, Euskal Herrian behatu ahal izan diren hizkuntza-ohituren arabera, erabakita egoten da – inkontzienteki bada ere – zein hizkuntzatan izango den elkarrizketa.

Euskara ez dakitenen kasuan erabaki hori automatikoa da (gaztelaniaz, alegia). Eta dakitenen artean, pertsona bat ezagutu eta denbora gutxira finkatu ohi da berarekin zein hizkuntza erabili. Talde batean ere antzera gertatzen da: hiztun jakin batzuen artean hizkuntza jakin bat hautatzen da eta aurrerantzean hiztun horien arteko elkarrizketak kasurik gehien-gehienetan hizkuntza horretan izango dira. Jakin badakigu hizkuntza-ohiturak aldatu ere egiten direla baina aldaketa ez da “berez” edo modu erraz batean gertatzen, eta hain zuzen aldagaiztasun horrek, hiztun jakinen arteko hizkuntza-ohiturak, oro har, egonkor izatea dakar.


2.3. “Lemoaztarren” erabilera baino gehiago Lemoako kaleetakoa

Muga metodologikoak tarteko, ezin dugu erabateko ziurtasunez esan neurketa honetan jasotakoa Lemoako biztanleen erabilera denik. Horren orde, zuzenagoa da esatea Lemoako kaleetan jaso dugun erabilera dela hemen aurkezten duguna. Izan ere, ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik.

Bestalde, kale-erabileraren neurketa egitean neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berdinak, eta ezin dugu aurreikusi kalean noiz norekin topo egingo dugun. Ondorioz, jasotako datuak adierazgarriak izanik ere, aztergai dugun aldagaia – euskararen kale-erabilera, alegia – neurri txiki batean aldagarria da. Horregatik da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Edonola ere, erabilitako metodologiak bermea ematen digu neurketa bakoitzaren emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzeko.



2.4. Aplikazioa



KALE NEURKETA LEMOA 2017

Elkarrizketako hizkuntza *

- Euskeraz
- Baki nahasian (solaskide berberak bi hizkuntzak tartikatzen dituzte)
- Gaztelania
- Baki bat(uz)ok euskaraz beste bat(uz)ok gaztelaniaz
- Beste hizkuntza bat

Solaskide berria(k) elkartu bad(ir)a hizkuntzaz aldatu du taldeak

- Ume/gazteak elkartu d(ir)a
- Heldu/nagusiak elkartu d(ir)a

Elkarrizketako partaide kopurua *

1 2 3 4 5 6 7 8 9

Haurrak edota umeak elkarrizketako partaide dira? *

- Bai
- Ez

Haurrak (0-1 urte)

1 2 3 4 5 6 7 8 9

Haurak

Muturak

Umeak (2-14 urte)

1 2 3 4 5 6 7 8 9

Haurak

Muturak

Gazteak (15-24 urte)

1 2 3 4 5 6 7 8 9

Haurak

Muturak

Helduak (25-64)

1 2 3 4 5 6 7 8 9

Erakundeak

Osaketa

Adinekoak (65etik aurrera)

1 2 3 4 5 6 7 8 9

Erakundeak

Osaketa

Oharrak

Zure partaidetza

© 2017 ahize aek. Guztia erabiltzeko behar duzun informazioa lortzeko, klikatu hemen.

2017ko neurketa honetan erabilera-datuak aplikazio informatiko baten bidez jaso ditugu. Jasotako informazioaren bidez, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, ondorengo hiru aldagai hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera izan dugu: sexuaren eragina, haurren presentzia eta neurtzen dugun taldearen adin-osaketa. Neurraldi guztietan aplikazio bera erabili da.

Aipatutako aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat atera dezakegu, esan bezala, hiztunen ezaugarriak jasotzeko aukera ematen digun aplikazioaren bidez.

Neurketa guztiak bikoteka egin dira.

2.5. Adierazgarritasuna

Esan bezala hainbat aldagaik erabileran duen eragina aztertu dugu neurketan: adina, haurren presentzia, eta sexua, besteak beste. Neurraldi guztietan hiztunaren adina jaso dugu; baita hiztuna hurrekin dagoen ala ez eta hiztunaren sexua ere.

Emaitzak aztertzean laginaren tamaina izango dugu kontuan, laginak gutxieneko kopuru bat bete beharko du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan, lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna galduko dute. Esaterako, behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina (neurtutako pertsona-kopurua) izango dugu, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa baitugu emaitzen irakurketa egiteko.



2.6. Ibilbideak, egutegia eta ordutegiak:

2017ko Lemoako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa egiteko honako ibilbideak erabili ditugu:

1. Ibilbidea: Eskola (irteera ordua) + eskolako jolas-parkea + Futbol zelaia (entrenamenduak) + Intzuntza + Herradura + jolas-parkeak.
2. Ibilbidea: Eskola (irteera ordua) + eskolako jolas-parkea + Arraibi (Ludoteka eta liburutegi ingurua, jolas-parkea ...).
3. Ibilbidea: Futbol zelaia + Intzuntza + Herradura + jolas-parkeak.

Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2017ko maiatzaren 15a eta ekainaren 10a bitartean egin dugu, honako koadro honetan azaltzen diren neurraldi eta ordutegietan:

Ondoren ikus daiteke ibilbideak eta egutegiak biltzen dituen fitxa:

KALE-ERABILERA NEURKETA						
Lemoa						
Maiatza	15	16	17	18	19	20
	22	23	24	25	26	27
	29	30	31	1	2	3
	5	6	7	8	9	10
						Ekaina
						11

Ordutegia	Ibilbidea
16:00-18:00	Eskola (irteera ordua) + eskolako jolas-parkea + Futbol zelaia (entrenamenduak) + Intzuntza + Herradura + jolas-parkeak
16:00-18:00	Eskola (irteera ordua) + eskolako jolas-parkea + Arraibi (Ludoteka eta liburutegi ingurua, jolas-parkea ...)
18:00-20:00	Eskolako jolas-parkea + Futbol zelaia (entrenamenduak) + Intzuntza + Herradura + jolas-parkeak
18:45-20:45	Futbol zelaia (entrenamenduak)+ Intzuntza + Herradura + jolas-parkeak
11:45-13:45	Futbol zelaia (partiduak)+ Intzuntza + Herradura + jolas-parkeak




3. Erabilera Lemoan, 2017. Eraitza orokorra

3.1. Hamar elkarrizketetatik ia erdia euskaraz Lemoan

Lemoako kaleetan entzundako 10 elkarrizketetatik ia 2,5 euskaraz izan dira, % 25,58 zehatzago esateko. Gainerakoak gaztelaniaz dira nagusiki (% 69,3); euskara eta gaztelera elkarrizketa berean biak batera % 3,8an izan da; eta badira beste hizkuntzetan eman direnak ere (% 1,4) (2017ko maiatza eta ekainean egindako neurketaren arabera).

A. Grafikoa: Hizkuntzen kale-erabilera (elkarrizketa kopurua kontuan hartuta). Lemoa 2017 (%)



1. Taula: Hizkuntzen kale-erabilera. Lemoa 2017 (%)

Jasotako elkarrizketa kopurua 1.181

	Kop.	(%)
Euskaraz	301	25,5
Gazteleraz	818	69,3
Biak nahasian	031	02,6
Biak	014	01,2
Beste hizkuntza bat	017	01,4

Biak nahasian: solaskide berberak bi hizkuntzak tartekatzen dituzte.

Biak: bat(zu)ek euskaraz beste bat(zu)ek gazteleraz.



2. Taula: Hizkuntzen kale-erabilera. Lemoa 2017 (%)

Jasotako elkarrizketetan egondako solaskide kopurua: 3.752

	Kop.	(%)
Euskaraz	832	22,18
Gazteleraz	2.681	71,45
Biak nahasian	135	03,60
Biak	67	01,78
Beste hizkuntza bat	37	00,99

Horixe da Lemoan egindako neurketaren emaitza nagusia. Neurketa nola egin den (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu dugu txosten honetako 2. atalean. Gogora dezagun, besterik gabe, guztira jasotako 1.181 elkarrizketetan 3.752 lagunen elkarrizketak behatu ditugula. Ikerketa sozialean erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori 3.371 biztanle dituen herri batentzat¹. Termino estatistikoetan, esan dezakegu euskarazko elkarrizketen % 25,5eko kopuru horri \pm % 3 akats-tartea dagokiola, % 95,0ko konfiantza mailan, unibertso osoaz hitz egitean². Oinarri sendoa dugu, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

3.2. Erabilerarena testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila

Ehuneko 25,5ekoa da, hortaz, euskararen kale-erabilera Lemoan. Kopuru hori asko den edo gutxi den hausnartzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua batetik (euskaldunen kopurua, alegia) eta kopuru horretatik eratortzen den "esperotako euskararen erabilera" bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.

¹ Iturria: INE, udal-errolda 2011 (urtarrilak 1).

² Hizkuntzen erabileren kale-neurketetarako Soziolinguistika Klusterrak berariaz landutako eredu matematikoaren emaitza (ikus <http://www.soziolinguistika.org/eu/lagina/eskaera/kale-erabilera>).



Lemoaztarren hizkuntza-gaitasuna

EUSTATEk 2011. urtean egindako Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren arabera, hiltunen bi heren baino apur bat gehiago, % 55,06 zehatz esanda, euskaldunak ziren Lemoan; % 24,03 euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nola-halako ezagutza bat, ulermen mailan behintzat, eta gainerako % 20,91 erdaldunak ziren, euskara ulertu ez eta hitz egiten ere batere ez zekitenak. Horiek dira Lemoako herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak. 2015ean antzeko operazio estatistiko bat egin du EUSTATEk, baina datu horiek ez dira oraindik argitaratu.

2 urtetik gorako biztanleriaren datuak

	Kopurua	Ehunekoa
Euskaldunak	1.835	55,06
Ia euskaldunak	801	24,03
Erdaldunak	697	20,91

B. Grafikoa: Euskarazko hizkuntza-gaitasuna. Lemoa 2011 (%)



Iturria: EUSTAT



Espero daitekeen euskararen erabilera

Zer-nolako harremana dago ezagutzaren eta erabileraren artean? Kasu honetan, Lemoan neurtutako erabilera (% 25,5 euskaraz) handia edo txikia da, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten tartea kontuan hartuta (% 55,06 euskaldun)?

Galdera horri erantzuten laguntzeko, bere garaian J.L. Alvarez Enparantza Txillardegik eredu matematiko bat garatu zuen. Eredu horretan, gune jakin batean dauden euskaldunen proportziotik abiatuta, euskararen erabilerari buruzko kalkulu bat egiten du. Zehazki, zera adierazten du eredu horrek: eremu jakin batean, bertan dauden euskaldun guztiak euskararekiko leial izanez gero (hots, euskalduna euskaldunarekin ahal duen guzti-guztietan euskaraz mintzatuz gero), eta herritarren harremanak guztiz ausazkoak izanez gero (egoera isotropikoa), zenbatekoa izango litzatekeen euskararen erabilera. Kopuru horri "espero daitekeen erabilera" (edo "erabilera isotropikoa") esan izan zaio; hots, baldintza teoriko horiek betez gero, erabilera zenbatekoa izango litzatekeen. Eta honako formularen bidez kalkulatzen da:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B = euskararen erabilera maila
 m_B = euskararekiko leialtasuna
 e_x = elebidunen proportzioa
 w_2 = bikoteen pisua
 w_3 = hirukoteen pisua
 w_4 = laukoteen pisua

Eta aplika dezagun formula hori Lemoako errealitatera:

$$PB = 1,0*(0,60 \times 0,55^2 + 0,22 \times 0,55^3 + 0,18 \times 0,55^4) = \mathbf{0,2346 = \% 23,5}$$


Kalkuluak eginda, hortaz, Lemoako kasurako % 23,5ekoa da baldintza horietan "espero daitekeen erabilera". Hortaz, Lemoako biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, % 23,5ekoa da espero daitekeen euskararen erabilera.



3.3. Euskararen erabilera Lemoan, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta

Jar ditzagun taula batean eta irudikatu grafiko batean orain arte aipaturiko hiru datu nagusi horiek:

C. Grafikoa: euskarazko hizkuntza-gaitasuna, horren arabera espero daitekeen erabilera eta euskararen kale-erabilera erreala Lemoan, 2017 (%)



3. Taula: euskarazko hizkuntza-gaitasuna, horren arabera espero daitekeen erabilera eta euskararen kale-erabilera erreala Lemoan, 2017 (%)

	%	Oinarria (kasu kopurua):	
Hizkuntza-gaitasuna 2011 (euskaldunen %)	55,06	Hiztunak	3.333
Espero daitekeen erabilera (2011) kalkulua	23,5	Behatutako elkarrizketak	1.181 (3.752 solaskide)
Erabilera erreala 2017	25,5	Euskaraz	301



Hirugarren taulan eta C grafikoan ikus daitekeen bezala, euskararen erabilera dezente apalagoa da Lemoan, ezagutza baino. Zehazki, elebidunen kopurutik (% 55,5) urruti gelditzen da euskararen erabilera (% 25,5). Lehen begiratu batean eman dezake euskara gutxi erabiltzen dela Lemoan, euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruarekin alderatuta, beti ere, ezagutzaren eta erabileraren arteko tarte hori oso handia dela, alegia. Baina erabileraren eta ezagutzaren proportzioak zuzenean alderatzen diren ondorioak, sarri, okerrak izaten dira, ia ezinezkoa baita erabilera- eta ezagutza-datuak bat etortzea.

Kontuan izan behar dugu, ia kasu guztietan euskaldunak gaztelaniadunak ere badirela (euskaldun elebakarrak haurren artean soilik topa daitezke), eta hizkuntza bat zein bestea erabil dezaketela. Eta noski, euskaraz hitz egiteko gai ez den mintzakidearekin beti hitz egingo dute gaztelaniaz; mintzakide elebidunarekin, berriz, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute. Beraz, ezinezkoa da euskararen erabilera ezagutzaren mailakoa izatea. Hori horrela izan dadin (erabilera eta ezagutza bat etor daitezen), bi baldintza bete beharko lirateke: euskaldunek inolako harremanik ez izatea euskaldun ez direnekin, eta euskaldunen artean ere euskara besterik ez erabiltzea. Horrela, Lemoako kasuan bi kopuru horien artean ageri den aldea, oro har, Euskal Herriko guneko eta udalerriko gehienetan izaten den aldearekin bat dator.

Aintzat hartzeko beste erreferentzia baldintza isotropikoetan euskaldunek leial jokatzuz gero "espero daitekeen erabilera" dugu. Kopuru hori Lemoan, % 23,5ekoa da. Kopuru horren argitara, handiagoa da Lemoan euskararen erabilera erreala baldintza isotropikoetan espero daitekeen erabilera baino.

Dena den, ezin dugu ahaztu honako hau erreferentzia teorikoa dela eta jakin badakigula praktikan harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, edonork ez duela praktikan edonorrekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin eta adin berekoekin, adibidez, eta herriko zenbaitekin ez dugu praktikan inoiz harremanik). Era berean, badakigu euskaldunen leialtasuna ez dela % 100ekoa izaten eta euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla beti euskaraz izaten.



Horiek guztiak horrela izanik, erabilera erreala "espero zitekeena" baino handiagoa izateak, zeharka, zera adierazi nahiko luke: herriko euskaldunak nahiko trinkoturik bizi direla, eta euren arteko harreman-sarea nahiko bizia eta aberatsa dela. Horrela, egunerokoan euskararen erabilera estatistikoki espero den baino handiagoa da. Horrez gain, euskaldunen leialtasunaren nolabaiteko seinale ere bada datu hori.


4. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK

4.1. Sexuaren araberako emaitzak

2017ko kale-erabilera jasotako elkarrizketetan egon diren solaskideak kontuan hartuta, esanguratsua da neurtutako en kopuruko aldea: emakumezkoak % 58,8 izan dira eta gizonezkoak % 41,2.

Jasotako kopuruen hizkuntza-portaeraren ehunekoak ateratzen baditugu, euskaraz egiten dutenen datuetan gizonezko eta emakumezkoen artean ez dago ia alderik.

**D. Grafikoa: hizkuntzen kale-erabilera, sexuaren arabera.
E.**






4. Taula: hizkuntzen kale-erabilera, sexuaren arabera.

	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskaraz	507	22,97	325	21,04
Gazteleraz	1.551	70,28	1.130	73,14
Biak	54	2,45	13	0,84
Biak nahasian	75	3,40	60	3,88
Beste hizkuntza bat	20	0,90	17	1,10
GUZTIRA	2.207	% 100	1.545	% 100

4.2. Adinaren arabeko emaitzak

Alde esanguratsuak antzeman dira Lemoan hizkuntza-portaera adinaren arabera aztertuz gero. Haurrak dira euskaraz gehien hitz egiten dutenak: % 30a izan da erabilera hori. Ondoren, helduen taldea dugu da erabilera handienarekin (% 19). Gazteen taldeak jarraitzen dio hurrenkerari (% 16) eta azkenik, erabilera-tasa txikiena adinekoen artean neurtu da (% 14).

F. Grafikoa: hizkuntzen kale-erabilera adinaren arabera. Solaskide kopurua kontuan hartuta.









**5. Taula: hizkuntzen kale-erabilera, adinaren arabera.
Solaskide kopurua kontuan hartuta.**

	Haurrak /umeak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
Euskaraz	399	031	351	051	832
Gazteleraz	860	152	1.352	317	2.681
Biak	47	007	73	008	135
Biak nahasian	14	003	050	000	067
Beste hizkuntza bat	009	000	028	000	037
Guztira	1.329	193	1.854	376	3752

**G. Grafikoak: hizkuntzen kale-erabilera, adin bakoitza atalka.
Solaskide kopurua kontuan hartuta.**







Datuok deigarriak dira hainbat alderditik ikusita. Euskal Herriko datu orokorrekin alderatuta funtsezko desberdintasuna antzematen da: Euskal Herrian, oro har hartuta, zenbat eta belaunaldi gazteagoa izan, orduan eta euskararen erabilerak egiten du gora. Hots, gehien erabiltzen dutenak haurrak dira, ondoren gazteak, jarraian helduak eta, azkenik, adinekoak. Hurrenkera hori da, hain zuzen, euskararen berreskurapenaren ikuspegitik egokiena.

Lemoako datuak, alabaina, bestelakoak dira. Lemoan joera orokorraren baitan haurrak dira gehien hitz egiten dutenak euskaraz, baina hortik abiatuta hurrenkera bestelakoa da, hau da, haurren ondoren helduak dira euskara gehien darabiltenak, ondoren gazteak eta azkenik adinekoak.



6. Taulak: hizkuntzen kale-erabilera, adin tarte berekoen artean.

Haurrak/umeak	ELKARRIZKETAK		SOLASKIDEAK	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskara	47	29,19	140	25,74
Gaztelania	110	68,32	389	71,51
Biak	0	0,00	0	0,00
Biak nahasian	3	1,86	15	2,76
Beste hizkuntza bat	1	0,62	2	0,37
Guztira	161		544	



Gazteak	ELKARRIZKETAK		SOLASKIDEAK	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskara	11	26,83	23	20,54
Gaztelania	29	70,73	83	74,11
Biak	0	0,00	0	0,00
Biak nahasian	1	2,44	6	5,36
Beste hizkuntza bat	0	0,00	0	0,00
Guztira	41		112	

Helduak	ELKARRIZKETAK		SOLASKIDEAK	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskara	29	9,01	62	7,21
Gaztelania	293	90,99	798	92,79
Biak	0	0,00	0	0,00
Biak nahasian	0	0,00	0	0,00
Beste hizkuntza bat	0	0,00	0	0,00
Guztira	322		860	

Adinekoak	ELKARRIZKETAK		SOLASKIDEAK	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskara	7	10,61	17	9,88
Gaztelania	58	87,88	151	87,79
Biak	0	0,00	0	0,00
Biak nahasian	1	1,52	4	2,33
Beste hizkuntza bat	0	0,00	0	0,00
Guztira	161		544	



H. Grafikoak: Hizkuntza bakoitzaren ehunekoak solaskide kopuruari dagokionez



Ikus dezakegunez, zenbat eta solaskide gehiago egon, euskararen erabilerak behera egiten du. Bi-hiru pertsonako taldeetan sarriago entzun da euskara gaztelera baino, baina solaskide kopuru horretatik gora, gaztelera izan da nabarmendu dena.



7. Taula: Elkarrizketako kop. solaskide kopuruaren arabera

Solaskide kopurua	Euskara		Gaztelania		Biak		Biak nahasian		Beste hizkuntza bat	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
1	9	2,99	20	2,44	0	0,00	0	0,00	2	11,76
2	164	54,49	322	39,36	2	14,29	7	22,58	12	70,59
3	75	24,92	207	25,31	5	35,71	6	19,35	2	11,76
4	27	8,97	121	14,79	2	14,29	5	16,13	0	0,00
5	17	5,65	74	9,05	1	7,14	7	22,58	1	5,88
6	4	1,33	37	4,52	0	0,00	3	9,68	0	0,00
7	2	0,66	21	2,57	1	7,14	0	0,00	0	0,00
8	1	0,33	8	0,98	0	0,00	0	0,00	0	0,00
9	0	0,00	3	0,37	2	14,29	1	3,23	0	0,00
10	0	0,00	0	0,00	1	7,14	1	3,23	0	0,00
11	1	0,33	1	0,12	0	0,00	1	3,23	0	0,00
12	0	0,00	1	0,12	0	0,00	0	0,00	0	0,00
18	0	0,00	1	0,12	0	0,00	0	0,00	0	0,00
20	1	0,33	1	0,12	0	0,00	0	0,00	0	0,00
21	0	0,00	1	0,12	0	0,00	0	0,00	0	0,00
Guztira	301		818		14		31		17	

Datuok ikusita, bizpahiru pertsonako taldeak dira gehiengoak.

5. HAURREN PRESENTZIA


Taulak eta grafikoak datuak kontuan hartzen baditugu, ikus dezakegu, haurrak beste taldekoren batekin daudenean euskararen erabilerak nabarmen egiten duela gora:

8. Taula: Hizkuntzaren kale-erabilera, haurren presentzia

Haurren presentzia	ELKARRIZKETAK		SOLASKIDEAK	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskara	198	34,20	577	29,36
Gaztelania	352	60,80	1291	65,70
Biak	8	1,38	37	1,88
Biak nahasian	13	2,24	60	3,05
Beste hizkuntza bat	8	1,38	19	0,97
Guztira	579		1.965	



I. Grafikoa: Hizkuntzaren kale-erabilera, haurren presentzia




9. Taula: Hizkuntzaren kale-erabilera, haurren presentzia ez

Haurren presentzia	ELKARRIZKETAK		SOLASKIDEAK	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskara	103	17,11	255	14,57
Gaztelania	466	77,41	1390	79,43
Biak	6	1,00	30	1,71
Biak nahasian	18	2,99	75	4,29
Beste hizkuntza bat	9	1,50	18	1,03
Guztira	602		1.750	



J. Grafikoa: Hizkuntzaren kale-erabilera, haurren presentzia ez





DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)

Hona hemen 2017. urteko udaberriari, Lemoako udalerrian Udaleko euskara Zerbitzuak egindako Lemoako hizkuntza-erabileraren kaleneurketa, 2017 ikerketaren ondorio nagusiak:

- Lemoako hizkuntza-erabileraren kaleneurketaren arabera, % 25,5ekoa izan zen Lemoan euskararen erabilera. Elkarrizketa gehienak gaztelaniaz izan ziren (% 69,30) eta gainerakoa beste hizkuntzetan.
- Lemoako euskararen ezagutza kontuan hartuta espero daitekeen erabilera-tasa baino altuagoa da kaleko erabilera erreala (% 23,5 beharrean % 25,5ean). Erlatiboki, beraz, bertako herritarren hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta, euskara gehiago entzuten da Lemoan estatistikoki ausaz espero daitekeena baino.

Adinaren araberako datuen banaketak azalpen interesgarriak eskaintzen ditu:

- Haurrak dira Lemoan gehien hitz egiten dutenak euskaraz (% 30). Ondoren helduak (% 19), gazteak (% 16) eta adinekoak (% 14).
- Hurrenkera hori ez da ohikoa Euskal Herria bere osotasunean hartuta. Izan ere, oro har haurrak dira gehien hitz egiten dutenak, baina ondoren gazteak datoz, helduak eta adinekoak, hurrenez hurren. Beraz, akaso, interesgarria izan daiteke hurren eta gazteen artean nabarmentzen den aldearen ezaugarria hurbiletik ezagutzea.
- Haurrak hurrekin ari direnean % 30ekoa da erabilera. Haur eta nagusiekin osatutako taldeetan kopuruak apurtxo bat egiten du gora, % 34ra. Aldiz, nagusiak haurrik gabe daudenean kopuru hori nabarmen jaisten da % 17ra arte. Datu hori da hain zuzen, ikerketa honetan nabarmentzeko garrantzizkoenetakoa.